

Baionan, 2018ko azaroaren 30ean

Jaun / Andere agurgarria,

Duela hainbat hilabete, jendarte zibilak Société Générale-ari deia luzatzen dio, banku horrek ekartzen duen klima orokorraren bai eta tokiko komunitate eta ekosistementzat izigarri suntsizaille den finantza sustengu masiboari buruz lkatza, petrolio zilatzeak Artikoan eta ur sakonetan, asfaltodun hondarrak, gas likidoaren esportatzea,.. Frantses Estatuko lehen bankua da sektore horiek finantzatzeko, 2015 eta 2017 arten 7 miliar \$-etik goiti inbertitu dituelarik.

2011n Frantses Estatutik debekatua izan ondoren, Ipar Amerikan suntsiketak egin dituen eskisto edo arbel gasarentzat Société Générale bankuak hornitzen ditu bereziki finantza zerbitzu garrantzitsu batzu, Azken hamarkadan, eskala handian eskisto gasen ateratzeak itzulerarik gabeko moldean kutsatu ditu amerikar lurraldearen atal handi batzu, hiri handien bazterretara helduz, airea, ura eta lurra kutsatuz. Dinamika hori gelditzetik urrun, Donald Trump-ek gero eta urrunago nahi du pusatu eskisto gasen ekoizpena, Europara eta Asiara esportatzeko.

Zer harreman du egoera horrekin Société Générale-ak? Eskisto gasen eskala handiko esportazioa bakarrik egiten ahal da gasarentzat azpiegitura berri batzuren eraikitzeari esker: horretarako, amerikar kostetan 36 gas esportatze terminal aurreikusiak dira, gaur egun bakarrik 2 direlarik martxan. Eta Société Générale bankua handitze horren aktore estrategiko gisa kokatzen ari da: mundu mailan lehen bankua da horrelako proiektuen finantzatzeko, 2017 urtean bakarrik 1,1 miliar \$-ekin.

Société Générale bankuaren negozio estrategia hau biziki kezagarria da, azpiegitura horiek bultzatzen baitute eskisto gasen ustiaketa baita beste putzu batzuen irekitzeak ere eta izigarriko berotegi gasen isuriak sorraraziko baitituzte, eta hau munduaren beste puntan.

SG bankua Rio Grande LNG (4 km<sup>2</sup>) deitzen den eskisto gasen esportaziorako petrolio portuaren eta Texas hegoaldeko Rio Bravo Pipeline deitzen den gasbide bikoitzaren (210 km) garapenetaz erantzule nagusia da bereziki NextDecade enpresaren laguntzarekin. 20 miliar \$ balio duen proiektu honek 44 ikatz zentrala bezainbat berotegi efektuko gas airera botako lituzke. Babestua den parke natural baten mugan kokatua, Rio Grande deltako biodibertsitate aberatsarentzako mehatxu larria da.

Rio Grande haraneko biztanleen bitartekari egiten gara, hauek urte luzez ihardokitzen dute beren lurak ez daitezen sakrifikatuak izan energia fosilen mesederako. Askotan, alimaleko desberdintasun ekonomiko eta sozialak pairatzen dituzten populazioak dira jadanik eta beren seguritatea, beren osasuna, beren bizibideak mehatxatuak ikusten dituzte industrialari eta bankari batzuren onetan. Alta ez diete hitzik uzten. Hala, Rio Grande LNG garatzen da Esto'k Gna bertako komunitatearen kaltetan, aholku galde egin gabe, Nazio Batuek ameriketako indianoei onartzen dieten baimen askea, aldez aurrekoa eta argia hertsatuz.

Frantziako zuen bulegoetan ekintzak burutzen ari diren pertsonak kezkatuak dira Société Générale bankuak duen zigorgabetasun osoaz. Bankuari eskatzen diogu Trump administrazioaren eta industriari amerikarren erokeria klimatizida segitzetik geldi dadin, eta eskisto-gasa erauzteko enpresak eta behar gabeko egitura berriak sustengatzetik geldi dadin. Ez da hain iraultzailea: BNP Paribas bankua horretara engaiatu da, duela urte bat. Société Générale bankuari eskatzen diogu berdin egitea.

Gutun honen bidez, gure ekintza kolektiboaren arrazoiak aurkeztu nahi izan dizkizuegu eta berriz ere azpimarratu nahi dugu ez zaituztegu zuek auzitan jartzen, Société Générale bankuko langileak, baizik eta zuen banku-taldeko zuzendaritza: gu guzien etorkizuna arriskuan ezartzen duten erabakiak beren artean hartzen dituzten pertsona multzo mugatu hori.

Eskertzen zaituztegu, gutun honi emanen diozuen arretarengatik.

Adeitasunez,

Bizi !  
Les Amis de la Terre France  
ANV-COP21

**Europako eta Amerikako GKE hauek sustengaturik:**

Rainforest action Network

BankTrack

Sierra Club

**Rio Grande ibarreko komunitateek eta herri autoktonoek sustengaturik:**

Save Rio Grande Valley From LNG

Carrizo / Comecrudo Tribal Nation of Texas